



URDULIZ HAZKA ETA IRABAZI 2025 KANPAINAREN OINARRIAK

1. XEDEA ETA ASMOA

Kanpaina honen xedea da **Urduliz Hazka eta Irabazi 2025**-en lehen edizioa martxan jartzea, udalerriko establezimenduetan kontsumoa bultzatzeko ekimen gisa, herritarrei Urdulizko enpresetan egindako erosketetan deskontu-bonua eskainiz. Horrela, bai herritarrek bai Urdulizko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sektoreak onura izango dute.

Laguntza honen helburua da gure udalerriko ekonomia suspertzen laguntzea.

2. ONURADUNAK

Kanpaina honen onuraduntzat hartzen dira Urdulizko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduak.

3. SARIEN ZENBATEKOA

Kanpainaren sariak guztira 5.900 €-koak dira, honela banatuta:

- **RASCA-GANA: 5.000 € (BEZa barne)**, 10 €-ko balioa duten bonuetan, kanpainari atxikitako establezimenduen artean modu orekatuan kontsumitzeko.
- **ZOZKETA: 900 € (BEZa barne)**. 10 €-ko bonua irabazi ez duten parte-hartzaileek aukera izango dute zozketan parte hartzeko, rasca-gana txartelaren atzealdeko datuak betez eta Urdulizko KULTUR ETXEA-n (Aita Gotzon kalea, 16 bis - 48610 Urduliz) kokatutako hautestontzietan utziz.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 09:30-13:30 eta 16:00-20:00; larunbatetan 09:30 -14:00.



4. ESTABLEZIMENDUENTZAKO DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Urdulizko Merkatarien Elkarteak establezimenduetan kontsumoa lagunduko du sari-bonuen bidez, eta bonuak ordaintzeko modutzat onartuko dira atxikitako establezimenduetan. Gainera, parte-hartzaile guztien artean zozketa bat egingo da.

Bonuek 10 €-ko balioa izango dute, eta azken prezioari (BEZa barne) deskontatuko zaizkio.

10 €-ko bonuen zenbatekoa Elkarteak bere gain hartuko du. Zozketan guztira 900 €-ko hainbat sari banatuko dira, atxikitako zenbait merkataritzatan trukatzeko.

5. ESTABLEZIMENDUEN ATXIKIPENA: Baldintzak, epea eta prozedura

1- Baldintzak

Programa honetara atxiki ahal izango dira Urdulizen kokatutako establezimenduak (pertsona fisikoak zein juridikoak), baldin eta:

- a) Merkataritza-, ostalaritza- edo zerbitzu-jarduera egiten badute.
- b) 10 langile baino gutxiago badituzte.
- c) Establezimendua Urdulizko eremu urbanoan kokatuta badago eta IAE udal honi dagokio.

Elkarteak, beharrezkoa denean, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa eskatu ahal izango du. Baldintzak betetzen ez dituzten entitateen eskaerak ez dira onartuko.

2- Atxikipenaren epea

Establezimenduek programara atxikitzeko epea 2025eko irailaren 19tik urriaren 6ra izango da.

3- Atxikipenaren prozedura

Interesa duten establezimenduek dagokion eskaera bete eta entregatu ahal izango dute:

- Urdulizko KULTUR ETXEA-n, ordutegi arruntan.
- Eskaneatuta, helbide honetara bidalita: urduliz@activa.net
- Webgune honetako formularioaren bidez: www.urdulizdendak.org

Komunikazio-bide nagusia eskaeran adierazitako posta elektronikoa izango da.

6. ESTABLEZIMENDU ATXIKITUEK HARTZEN DITUZTEN BETEBEHARRAK

Atxikitze-eskaera sinatzearekin batera, establezimenduek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Kanpaina beren bezeroen artean zabaltzea.



- Material publizitarioa jasotzea eta leku ikusgarrian jartzea, bai establezimenduan, bai webguneetan eta sare sozialetan.
- Elkarteak **KIT** bat emango die, online zein offline euskarrian:
 - Online: kanpainaren kartela + sare sozialetarako kartelak + banner.
 - Offline: rasca-gana/zozketa + flyer + bereizgarria + alfonbra bereizgarria.
- Bezeroek bonuak aurkezten dituztenean, produktuak/zerbitzuak horien truke ematea.
- Bezeroen artean rasca-ganak banatzea.

Ez da diru itzulketarik egingo bonuaren balioa eta erosketaren prezioaren arteko aldeagatik.

Itzulketen politika establezimendu bakoitzak ezarriko du. Produktua itzultzen bada, bonu berriak edo diru-itzulketa egin ahal izango da.

7. RASCA-GANEN BANAKETA

Rasca-ganak establezimenduen artean modu orekatuan banatuko dira, guztiek sari-bonuen eta hutsik daudenen kopuru bera izan dezaten.

10 €-ko sari-bonuan zein establezimendutan trukatu behar den adieraziko da.

Laguntza modu orekatuan banatzeko, atxikitako establezimendu guztiek sari-bonuen kopuru bera izango dute.

Sobratu diren txartelak, eskatzen dituzten establezimenduen artean banatu ahal izango dira, ordenaren arabera.

8. KANPAINAREN IRAUPENA

- Rasca-gana sarituen kontsumorako epea: 2025eko azaroaren 1etik 26ra.
- Zozketa-txartelak entregatzeko epea: 2025eko abenduaren 28ra arte.
- Zozketa: 2025eko azaroaren 30ean, Urdulizko KULTUR ETXEA-n.

9. ESTABLEZIMENDUENTZAKO ORDAINKETA-PROZEDURA

Justifikazio-dokumentazioa:

Establezimenduak sari-bonuen zenbatekoa kobratzeko, bonuak eta erosketaren tiketak edo faktura (BEZa barne) aurkeztu beharko ditu, gehienez 2025eko abenduaren 5era arte. Fakturan kontu-zenbakia agertu beharko da, eta titularitate-ziurtagiria erantsi. Udalarekin, Foru Aldundiarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean izatea beharrezkoa izango da.

Dokumentazioa zuzen aurkeztu ezean, establezimenduak 10 eguneko epea izango du akatsa zuzentzeko. Bestela, eskabidea baztertutzat hartuko da.



Elkartek ordainketa 2025eko abenduaren 10ean egingo du, transferentzia bidez.

10. DOKUMENTAZIOA EMATEKO ETA JASOTZEKO TOKIA ETA ORDUTEGIA

KULTUR ETXEA Urduliz

Aita Gotzon kalea, 16 bis - 48610 Urduliz

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 09:30-13:30 eta 16:00-20:00; larunbatetan 09:30 - 14:00.

KANPAINAN PARTE HARTZEAK OINARRI HAUEK OSORIK ONARTZEA DAKAR.

ELKARTEAK ESKUBIDEA IZANGO DU OINARRIETAN AURREIKUSI GABEKO GAIAK ERABAKITZEKO.

ANTOLAKETA-ARRAZOIENGATIK ALDAKETAK EGIN AHAL IZANGO DIRA.

Informazio gehiagorako:

Urdulizko Merkatarien Elkartea

Adtiva Comunicación Creativa

Belen Moran

Tel.: 944 069 800 / 652 762 802

Email: urduliz@activa.net | Web: www.urdulizdendak.org

